

## Eguerdian hasita festa gaur Santa Barbaran, San Inazio eguna ospatzeko

■ Goizeko 10:00etan dianak emango dio hasiera aurtengo festari, herrian bertan ■ Santa Barbaran 12:00etan hasiko dira ekitaldiak ■ Indio eta Atarrabiyori omenaldia, meza, bertsolariak, herri kirolak, bazkaria, umeentzako jolasak eta toka daude.


SAN Inazio eguneko festa dago gaur Santa Barbaran, Morkaiko kultur taldeak antolatuta. Goizeko 10:00etan Hernanin bertan izango da diana eta eguerdiko 12:00etan hasiko da festa Santa Barbaran. Indio zenari omenaldia egingo diote eta jarraian meza izango da ermitan bertan. Meza ondorenean bertsolariak kantatuko dute. Urte askoan Santa Barbarako festan kantatu izan duten Aterpe eta Antton Garin ariko dira Xabier Legarreta, Josu Oiartzabal eta Ibon Minerrekin batean.

### Herri kirol desafioa eta bazkaria

Bazkal aurretik herri kirol desafioa dago, bi talderen artean. Harria jaso, korrika eta aizkoran egin beharko dute. Talde

batean Joxe Anjel Oiartzabalek egingo du korrika, Joseba Izetak altxatuko du harria eta aizkoran ariko dira Joxe Anjel Tapia eta Baleri Aranburu. Beste taldean Roxario Pikabea ariko da korrika, Aitor Barretxea harri jasotzen eta aizkoran Juan Migel Larrabide eta Jon Larrañaga Larra.


Herri kirolen ondoren herri bazkaria dago kanpoan: marmitakoa, txuleta eta Adarragako postrea. Bazkal ondoan bertsolariak ariko dira berriz ere, azken momentuko espontaneo eta guzti, seguru asko. Arratsaldean umeentzako jolasak jarriko dituzte eta toka txapelketa izango da jatetxe ondoan dagoen tokan bertan. Gero, txokolatada dago nahi duen guztiarentzat. □



Iaz marmitak eramaten ere aritu ziren herri kiroletan.

### EGITARAUA

- 10:00 Diana herriko kaleetan
- 12:00 Indiori omenaldia.
- 12:30 Meza ermitan
- 13:30 Indio eta Atarrabiyori omenaldia.
- 14:00 Bertsolariak
- Ondoren Herri kirolak.
- 14:30 Bazkaria.
- 16:00 Toka txapelketa eta umeentzako jokoak eta txokolatada.



Udaletxeko harreran sariari begira. Ez zaio asko falta Hernanin gelditzeko.

### DANTZA SUELTOA

## Parrondo anai arrebeak Segurako saria utzi zuten atzo Udaletxean

AMAIA eta Aitor Parrondo gelditu dira dantza sueltoan Euskadiko Txapeldun, Seguran. Txapelketa hori irabaztean sari bat Udaletxean uzteko izaten da eta atzo eraman zuten dantzariak Hernaniko Udaletxera. Datorren urtean Segurara bueltatu beharko dute ordea, Saria Hernanin gelditu dadin, txapelketa 5 aldiz edo 3 aldiz segidan irabazi behar baita. Parrondotarrek Euskal Herriko txapelketa irabazten duten 3garren aldia dute eta segidan 2 badituzte dagoeneko. Datorren urtean irabaztea lortu ezkeru Hernaniko Udaletxerako izango da saria, 3 aldiz segidan lortuko bailukete.

### Harrera asteartean

Joan den asteartean Udaletxean harrera egin zieten bi dantzariari. Inaki Arratibel Alkateordeak zorionak eman zizkien lortutako garaipenagatik eta saria bertan utzi zuten parrondotarrek. Aurrerako dituzten asmoei buruz galdetuta, garaipen honek segitzeko motibazioa eman diela diote Amaia eta Aitorrek, izan ere gutxi dira Euskal Herriko txapela hiru aldiz segidan lortutako dantzariak, eta datorren urtean aukera dute azaña hori lortzeko. Gainera bikote bakarra dago 4 aldiz irabazi duena eta parrondotarrek hiru aldiz irabazia dute dagoeneko Euskadiko txapelketa. □

**GALARRETA JAI-ALAI!**

Ostegun, larunbat eta igandetan jaialdiak

**GAUR 16:00ETATIK AURRERA**

**ERREMONTE JAIALDIA:**

1. partidua: Larrea - Ion / Zalakain - Agirrezabala
2. partidua: "Casino Kursaal" txap.: Iriarte - Altuna II
3. partidua: Ezkurra-Lizaso / Elizalde-Altuna I-Eizagirre
4. partidua: Sarasua - Urko / Matxin III - J.Etxeberria

**Aran**


Opariak  
Dekorazioa  
Bitxiak

Bihar zabalduko dugu denda berria.  
Zatoz ezagutzera.

Elkano 35 - 20.120 HERNANI  
Tel.: 943 33 03 25

adarraga  
Konfitegia  
Pasteldegia

Urbietan Etorbidea 7  
☎ 943 55 09 10



**ZINGI-ZANGA**

Jatetxea

Eguneko menuak

Asteburuan afariak

Florida 54  
☎ 943 33 03 97

ZINGI - ZANGA  
Eguneroko menuak.  
Asteburuetan afariak.

## ERREMONTA -CASINO KURSAAL TXAPELKETA



Garikoitz Altuna amezketarra.



Txetxu Iriarte azpeitiarra.

### Altuna II eta Iriarte neurtuko dira gaur, buruz buruko Txapelketako lehenengo partiduan

■ Irabazleak Eizagirrenen kontra jokatu beharko du abuztuaren 7an ■ Txapelketa hiru taldetan hasiko dute eta talde bakoitzeko irabazlea pasako da finalurrekora ■ Abuztuan egunero izango da erremonte jaialdia Galarretan.

BURUZ Buruko Casino Kur-saal txapelketa gaur hasiko da Galarretan. Erremonteko 10 jokalari onenek neurtuko dituzte indarrak hiru taldetan banatuta. Aurten denek jokatu beharko dute hasierako fasean, nahiz eta batzuk beranduago sartu. Gaurko partiduan Altuna II eta Iriarte neurtuko dira. Altuna IIak buruz buru San Fermin torneoa irabazia du eta Iriartek bigarren mailako txapelketa. Gainontzean bi bitara Garikoitz Altunak 2 txapela ditu eta Txetxu Iriartek bat badu. Partidu gogorra espero da gaur Galarretan. 16:00etan hasitako jaialdiko bigarrena izango da. □

#### PARTIDUEN KALENDARIOA

A Taldea	B taldea	C taldea
		Altuna II / Iriarte Uztailak 31
Altuna I / Etxabe Abuztuak 9	Aizpuru / Bitoria Abuztuak 2	Eizagirre Abuztuak 7
Ezkurra Abuztuak 21	Zeberio II Abuztuak 14	Lizaso Abuztuak 16

⇒ Hiru taldeetako irabazleek finalurrekoak jokatuko dituzte denek denek kontra abuztuaren 23, 26 eta 30ean.

⇒ Bi lehenengoek jokatuko dute finala irailaren 6an.

### Herri barruko autobus zerbitzurik ez da izango abuztuaren 4tik 20ra

HERRI barruko autobus zerbitzurik ez da izango abuztuaren 4tik 24ra, Alkatetzatik bidalitako oharrak dioenez.

Udaran autobusa erabiltzen duen jende kopurua asko jaisten da, eskola umeak oporretan daudelako batipat eta bolada hau da aproposena zerbitzua gelditu eta txoferrari atsedean emateko. Herri barruko autobusak Urbietan kalean hasita, Antziola, Sagastialde, Etxeberri, Urbietan eta Zikuñagako buelta egiten du. Jenderik gehien goizetan ibiltzen da eta feri eguna denean eta eguraldi txarra denean jende gehiagok erabiltzen du zerbitzua, normalean. □



Herri barruko autobusa.



Igeriketa talde guztia.

### Igeri egin nahi duten gazteek orain dute izen emateko aukera

■ Kirol Elkarteko bulegotik pasa behar da izen ematera edo 943 33 60 79 telefonora deitu.

IGERIKETA taldean igeri egin nahi duten gazteek orain dute izena emateko aukera. Elkano Kalean Kirol Elkarte-

ak duen bulegoko buzoian datuak utzi edo bertara deitu bestela: 943 33 60 79 telefonora. □

### Kandiko Sagarzazu izan liteke Frantziako poliziak atxilotu duenetako bat

■ Kandido Sagarzazu 28 urteko donostiarra da, urte askoan Hernanin bizitua ■ ETArekin zerikusia duelakoan atxilotu dute beste bi lagunekin batera.

FRANTZIAKO Cahors herriko etxebizitza batean hiru lagun atxilotu zituen atzo goizaldera, zenbait komunikabidetan atzo azaldu zenez. Atxilotuetako bat Kandido Sagarzazu izan liteke, urte askoan Hernanin bizitutako donostiarra. Beste biak Jose Migel Illarramendi oñatiarra eta Claude Recart baionarra dira atzo azaldutako informazioaren arabera. Hiru lagu-

nak ETArekin zerikusia dute-lakoan atxilotu dituzte eta albiste agentzien arabera hiru atxilotuek armak zeuzkaten atxilotu dituzten garaian. Etxebizitzan leherkariak, matrikula faltsuak eta matrikulak egiteko materiala aurkitu omen dituzte, dokumentazio faltsua egiteko materialarekin batean.

Hirurak Frantziako Tolosa hiriko polizia egoitzan daukate atxilotuta. □

#### IRAGARKI MERKEAK

Bi neska behar ditugu Hernaniko taberna batean sukalde eta zerbitzari lanak egiteko. 25 urtetik gorakoak eta esperientziarekin. Deitu: 943 55 26 94 (Nekane 10:00-15:00 eta 17:30-23:00)

Hernaniko Pelukeria batean estetika lanak egiteko pertsona bat behar degu. Deitu: 943 55 63 68

Hernaniko taberna batek pertsona bat behar du lanerako. Kondizio onak. Interesatuek deitu: 660 982 145 edo 678 058 003.

#### ZERBITZUAK

##### ☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶ DYA: 943 464622
- ▶ Autobusak: 943 556662
- ▶ Anbulatorioa: 943 006666
- ▶ Jokalari anonimoak: 943 331103

##### ☎ FARMAZIAK

- ▶ Egunez: Chucla Kardaberaz 48 ☎ 943 551793
- ▶ Gaez: Elizondo Andoain. Zumea 30 ☎ 943 592629